

**ZENBAT BURU**  
Aintzane Garate

**ERREPORTAIA**  
Udako oporrak  
bizitzeko era des-  
berdinak

**GEHIGARRIA**  
Kalezulotik  
baserrira

**BERBETAN**  
Pilar Arregi,  
Mexikon bizi den  
elgoibartarra

**KIROLA**  
98/99 denboraldiko  
Haundi taldearen  
aurkezpena

**KULTURA**  
Udalaren balorazioa  
San Bartolome jaien  
inguruan

# BARRREN

1998ko irailaren 11  
V. urtea - 247. zkia

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A



Txomin Arkotxa,  
HAUNDIren entrenatzaile berria  
**“Maila mantentzia da hel-  
burua”**

“Futbolian lan eitzeko gogua kalidadia bezain inportantia da” Txomin Arkotxa

# GARATE

Jantzidenda

San Bartolome, 13  
Tel: 943 74 11 29



## Manitas

U  
d  
a  
z  
k  
e  
a  
M  
e  
o  
k  
d  
a  
a



*Trailean, Errosario kaleko 12an,  
dena prezio hauetan:*





AINTZANE GARATE

Atal hau ez da **BARREN**en editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

## Eta berriro ere "martxan"

**G**ero eta zailagoa egiten zaigunez lanean hastea, zer gertatuko da aurrerantzean? Buelta eta buelta gehiago ematen dizkiot nire buruari hori pentsatzen dudako bakoitzean, baina ezin dut pentsamendu hau burutik kendu. Duela urte gutxi, hau da, gure gurasok gazteak zirenean, beraientzat ez zen ia oporrik existitzen, gaur egungo oporrekin konparatuta ez behintzat! Kanpora irteten ginenak, ez ginen hamabost egun eguzkitsu aprobetxatzera joaten, ez; kanpoan bizi ziren aitona-amonak agurtzearen bakarrak joaten ginen, besterik ez. Normalean, jai egunak, zubiak,... lasai eta erlaxatuta egoteko aprobetxatzen ziren, mendian buelta bat emanaz edo eta kalean lagunekin kafetxo bat hartuz.

Gaur egun, berriz, gero eta gehiago mugitzen gara ahalik eta urrutienara joan nahian, agian, gaur egungo oporrak ez ditugulako lehen bezala erabiltzen izango da, hau da, ez ditugulako lasai egoteko erabiltzen. Oraingoa, hala ere, ezberdina da.

Oporrak hartzen ditugunerako, prest egoten gara gure pentsamendu guztiak udako zereginetan lantzeko. Azken finean, ez

dugu oporrak zein azkar pasatzen diren pentsatzerik nahi izaten, hain da gogorra oporren bueltan berriz ere zure lana aurrean duzula, hasieratik hasia! Hala eta guztiz ere, hurrengo urtean oporrak gozatzeko aukera izango dudala pentsatzean, gogoaz pizten zait eta lanari aurre egin behar diodala esaten diot nire buruari.

**"Ez dugu oporrak zein azkar pasatzen diren pentsatzerik nahi izaten, hain da gogorra oporren bueltan berriz ere zure lana aurrean duzula, hasieratik hasia!"**


Askotan, etxeoandreak kexatu egiten gara oporretan izaten ditugun gorabeherekin: alde batetik, semea berandu jaikitzen delako, bestetik, hondartzara doa eta jatorduetan etxean egoten ez direlako... Eta horrela hainbat eta hainbat gauza. Arazo hauek direla medio, irrikitan egoten gara berriz ere bizimodu normalaz jabe egiteko, nahiz eta

laster lanean hasi behar dugula jakin. Baina bizimodu normalean ere badira arazo txiki mordo bat, eta nahi eta nahi ez, zoratu egiten gaituztenak. Argi dago atsedena hartzeko premia izaten dugula, pare bat egun badira ere.

Beraz, hobe da lan egiten dugun bitartean oporrak laister izango ditugula pentsatzea.

Animo langile guztioi eta gogoz hasi lanean. Oporrak laister dira gainean!!!

Barrak, Birak eta Barreak





**Nafarroa enparantza, 2**  
**20870 ELGOIBAR**  
 ☎ **943 74 41 12**  
**Publizitatea:**  
 ☎ **943 74 37 04**  
**Faxa: 943 74 37 04**

## ARGITARATZAILEA

Elgoibarko Izarra

## LAGUNTZAILEA

Elgoibarko Udala

## ZUZENDARIA

Ainhoa Lodoso

## KAZETARIAK

Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro

## PUBLIZITATEA

Miren Moreno

## MAKETATZAILEA

Mikel Cornejo

## ADMINISTRAZIOA

Amaia Martin

## GERENTZIA

Rafa Alvarez,

M. Angeles Ortuoste.

## KOLABORATZAILEAK

Irati Agirreazaldegi,

Ana Artetxe, Jose Mari Bastida,

Mari Karmen Elorza,

Maider Elustondo, Jon Eugi,

Koldo Galdona, Aintzane Garate,

Jon Garate, Juanito Gorostiza,

Arnaitz Gorriti, Alberto Iriondo,

Iñaki Jaio, KOKOE,

Imanol Larrañaga, Nieves Loliola,

Ongarri Zine Kluba, Asier Orbea,

Iñaki Raigoso, Julian Segundo,

Jon Suarez, Anjel Ugarteburu,

Iban Urizar, Miren Vallejo.

## BANAKETA ARDURADUNA

Imanol Larrañaga

## INPRIMATEGIA

Gertu Koop. E.

## TIRADA

4.000 ale

## LEGE GORDAILUA

SS-1.038/92

## ISSN

1139-1855

*Elgoibarko Udalak, Eusko  
 Jaurlaritzako Kultura  
 Sailak eta Foru  
 Aldundiak diruz  
 lagundutako  
 aldizkaria.*



## Eibar-Gasteiz autopista, zertarako?

**G**ipuzkoa eta Arabako Diputazio-  
 Gek inposatu nahi diguten Eibar-  
 Gasteiz peajedun autopistaren proiektu-  
 a, munstruo ekonomiko eta ekologi-  
 koa izateaz gain, zentzurik gabeko  
 eraikuntza bat besterik ez da. Hona  
 hemen arrazoi batzuk:

Deba bailarako errepideetan he-  
 rrien arteko trafikoa altua bada, he-  
 rrien arteko loturak bultzatu behar di-  
 rela argi dago, gaur egungo errepidee-  
 tan hobekuntza sakonak eginez, baina  
 inola ere ez autopista bat eraikiz, az-  
 ken hau ibilbide luzeetako trafikoa-  
 rentzat pentsatua baitago (enlaze bate-  
 tik bestera tarte handia, herri guztietan  
 sarrera-irteerarik ez) eta lurraldeari  
 emango liokeen zerbitzua oso eskasa  
 litzateke. Azkenean, trafikoari irtenbi-  
 dea emateko, parez pare doan beste  
 errepide bat derrigorrezkoa litzateke.

Hala ere, Eibar-Gasteiz autopista  
 ez da beharrezkoa ezta errentagarria  
 ere ibilbide internazional bezala.

Ez da beharrezkoa Euskal Herriak  
 lau ibilbide eskaintzen dizkiolako na-  
 zioarteko trafikoari: N1 (Irun-Gas-  
 teiz), A8 eta A68 (Behobia-Bilbo-  
 Gasteiz), Leitzarango autobidea eta  
 Belateko ibilbidea.

Ez da errentagarria Donostia-Mi-  
 randa edo Ebroko ibilbidea egiteko,  
 N1arekin konparatuz (Etxegarateko  
 desdoblamendua egin eta gero) 5 km  
 eta 3 minutu bakarrik aurreratzen bai-  
 tira. Eta N1ean peajerik ez dagoen bi-  
 tartean, Eibar-Gasteiz autopistan auto  
 batek 1.650 pta. ordaindu beharko li-  
 tuzke eta kamioi batek 2.900 pta.

Ikuspegi ekologikotik ere, peaje-  
 dun autopistak trazatu berria eskatuko  
 luke, lehengo errepidea aprobetxatu  
 ezin delako, eta honek izugarritzako  
 erasoak ekarriko luke horrelako bailara  
 estuarentzat.

Azkenean, hasierako galdera  
 erantzutea geratzen zaigu: autopista  
 zertarako? Betikoen poltsikoak gure  
 lepotik betetzeko. Hasierako aurre-  
 kontua 120.000 milioioa da eta insti-  
 tuzioek hainbeste diru ez dutenez, fi-  
 nantziatorako EUROPISTASi Eibar-  
 Gasteiz autopistaren peajearen kon-  
 tzesioa emateaz gain, A8ren (Bilbo-  
 Behobia) peajea beste 15 urtez gutxie-  
 nez luzatuko liokete, 2003 urtean libe-  
 ralizatu beharrean. Azken honek  
 300.000 milioiko irabaziak suposatuko  
 lituzke, eta hauxe da proiektuaren  
 benetako arrazoi bakarra.

Beraz, gure bailararen etorkizu-  
 naren eta baita ere gure poltsikoaren  
 alde apostu egiteak autopistaren erai-  
 kuntzaren aurka jokatzeari exijitzen  
 digu.

**Elgoibarko HB**

BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon behar dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN** eta **telefono zenbakia**.

## GALDERAK

◆ **Joan den abuztuaren 31n, San Pedron izan zen emakume batek komunak eta dutexak zergatik zeuden itxita jakin nahi du. Iazko abuztuaren ere zenbait egunetan San Pedron izan ziren eta gauza bera gertatu zitzairen, komunak eta dutexak itxita zeudela, alegia.**

San Pedroko zaintzaile eta arduradunaren esanetan, "aste-

barruan komunak eta du-txak itxita egoten dira eta asteburuetan bakarrik irekitzen dira. Astebarruan zelaiko belarra moztu eta garbiketa baino ez dira egiten eta, beraz, gainerako zerbitzuak itxi egiten dira. Asteburuetan, berriz, zerbitzu guztiak eskaintzen dira: komunak eta dutexak irekita egoten dira eta arduraduna ere bertan izaten da".

## KEXAK

◆ **Herritar batek deitu digu ondoko kexa azaldu nahirik: "Aspertuta nago kaleak garbitzen dituen makinak ateratzen duen zaratarekin. Paper zistrin bat jasotzeko izugarritzko zarata ateratzen duen aspiragailu moduko bat erabiltzen dute. Ez al da praktikoagoa ohiko erratza erabiltzea? Gainera, makinak egiten dituzten enpresetan ez al da kalitate kontrolik pasatzen zaratari dagokionean? Herriko kaleen garbitasunari buelta asko eman zaizkio azken hilabeteotan baina zer gertatzen da kutsadura akustikoarekin? Nor arduratu behar da horretaz?"**

◆ **Joan den egunean, mutiko batek Plaza Txikiko zabor kontenedorean txakurkume jaio berria (zilborrestea zeukan oraindik) topatu zuen harriz betetako plastikozko poltsa batean. Erabat goibel eta betilun etorri zaitzaigun BARREnera, txakurra zakarrontzira botatzeko kapaz den bihotz gabeko pertsonarik egon daitekeen sinestu ezinda. Esan digunez, txakurraren kargu egingo zen norbaiten bila ibili dira baina dagoneko ez da beharrezkoa izango, txakurkumea hil berri baita.**

◆ **Emakume batek txalo bat eta kexa bat argitaratzeko eskatu digu. "Bai Barricadaren kontzertuan eon zan gazterixiak (10.000 lagunetik gora izango zian), bai aire libreko zinian 'Titanic' ikusten egon zan plazakariak harritsu ein nindun zelako isiltasuna eta errespetua erakutsi zaben. Inpresionauta nao gaurko gazterixiak daukan edukazio onakin. Baina 'Titanic' pelikulia ikustera jun nitzanian pasau jatana lotsagarrixa beixandu jatan. 10ak hoge gutxitan jun ginan Plazara, bazakigulako jende asko jungo zala. Goiz jun arren, ez zauan aulki bat bera ere libre. Txarrena, emakume batek hemezazpi aulki zakazela izan zan. Lotsagarrixa da. Nere us-tez, ez litzake deabaldeko gauzarik eon bihar. Seguru zeozer pagau biharko balitz ez litzuzkeela 17 aulki hartuko".**

## B AI, E S A N ?



**Mari Jose Garmendia**

Psikologoa

Oporrak amaitu ondoren lanera bueltatzea gogorra izaten da. Izan ere, urtean hilabete izaten dugu atsedena hartu eta laneko eta bestelako arazoak ahazteko, eta deskonektatzea lortzen dugunean, berriz ere lanera bueltatu behar. Aste honetako deia opor osteko 'sindrome'ari buruz berba egiteko da, eta horretarako **Mari Jose Garmendia psikologoari deitu diogu.**

- **Hain gogorra al da oporrak amaitu ostean lanera bueltatzea?** - Gogor xamarra izan daiteke. Oporraldian fisikoki lasaitu egiten gara, gure pentsamenduen erritmoa ere askoz lasaigoa da eta gure aktibitateak erreforzanteak eta atseginak izaten ahalegintzen gara: bidaiak, distrakzioak, mendia, kirola, itsasoa... Beraz, bakoitza bere egoerara itzultzerakoan fisikoki zein psikologikoki egokitzen saiatu behar da.

- **Antsietatea, depresioak, angustia,... zein dira sintomak?** - Egoera ezberdin batera egokitzeko prozesuak antsietatea ekar dezake, hau da, beldur sentazio ez-atsegina, ondoko sintoma posible hauekin: loezina, urdaileko arazoak, apetitu falta, nekea, sexu arazoak, buruko minak, pentsamendu ez-atsegin eta kontrolaezinezak, culpa, autoestima arazoak, inseguritatea,...

- **Zein lanbidetan ematen dira gehienbat arazo hauek?** - Erizantzan eta irakaskuntzan erregistratuta daude antsietate kopuru altuenak.

- **Etxekoandreek ere asko sufritzen omen dute irailaren hasieran.** - Etxekoandre askok oporretan lanean jarraitzen dute eta beste kasuetan bezala, egunero kotasunera itzultzerakoan askori antsietatea handitzen zaie, benetako oporrik izan ez dutelako.

- **Zer egin dezakegu arazo hauek konpontzeko edo ahal den neurrian gutxitzeko?** - Erlajazio teknikak ikasi eta, ondoren, pentsamendu positiboak eta errealak barneratu, gureganatu, sinestu... bizitzari aurre egiteko indarra izateko.



### ESKERTZA

*1998ko Uztailaren 16an, 73 urte zituela hil zen  
JESUS BARRENETXEA ARAKISTAINen sendiak,  
bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak, hala nola  
hileta elizkizunetara agertu izana.*



# Opor desberdinak

*Iraileko aje eta “depresioak” une batez alde batera lagata, aste honetan oporretan elgoibartarrak nondik ibili diren jakiteko gogo sartu zaigu. Egia esan, ohiko turismoa alde batera lagata, bestelako esperientziak bizitzeko gogoz, “opor desberdinak” pasa dituztenak topatu ditugu. Pena da kontatutako guztia azaltzeko leku nahikoa ez izatea. Halere, lerro hauek irakurtzen batek baino gehiagok bidaiatu ahal izango du Senegal edo Cuba bezalako herrialdeetara.*



Andoitz Agirregomez-kortak 20 urte ditu eta aurtengo uda benetan berezia izan da berarentzat: jenbe izeneko tanborra eta arropa piska bat motxilan hartuta, trenez Edinburgoraino joatea zen Andoitzaren asmoa. Bidaia ondo hasi zen arren, gauzak ez zitzaizkion berak espero bezala ateratu. Hona hemen Andoitzaren kontakizuna: “Hendaiara ailegau eta tanborra jotzen hasteko kale baten bila hasi nitzan, baina han jende guztia kotxez mobitzen da eta kalia ez zauan inor. Martxa horretan ez nitzala inora ailegauko pentsatu naban, horregatik, bueltia eman eta Erreterira jun nitzan. Jaixak zian eta arratsaldeko 20:00ak aldera kale zentriko baten jarri nitzan jotzen. Nere barruan kriston esplosia sentitxu naban, ze ur-

te osua egon nitzan momentu hori itxoiten. Lelengo aldiz jotzen naban kalia, jendian aurrian! Baina hamar minutuan 5 pta. bakarrik bota zien eta kriston bajoia eman zian. Orduan, edifizio baten azpira jun eta lo itxia pen-tsatu naban. Hurrengo egunian merkatu plaza baten aurrian jarri nitzan jotzen. 50 minutuan 1.500 pta. bota zien eta orduan pen-tsatu naban igual biajia ez zala hain gaizki aterako. Handik Irunera jun nitzan eta gero Iruñeara. Hala ere, Iruñean nik uste dot jendia nahiko aspertuta daua eskaliekin eta danak pasau itxen zeber. Zaragozan ere jendia oso deskonfiau da. Alde haundixa dao herrixen eta hirixen artian. Hirixetan konturatzen nitzan andrekin boltsia



gogor hel-tzen zebela edo aurpegi raruakin begiratzen ziela. Herrixetako jendia askoz gehixo enrollatzen da.

Huescan beste bi gau pasau nitxun parke baten lotan. Han neska frantses bat ezagutu naban, 19 urte zakazen eta 16 urtekin alde in zaban etxetik motxila bat hartuta. Jacara juteko asmuakin “dedo itxen” hartu nindun donostiar batek esan zian Sallentera juteko, han kontzertuak zeudela, Afrikako taldiak eta hola, eta egixa esan, oso ondo egon zan. Sallenten ostatu baten in naban lo eta han hasi nitzan pentsatzen lagunak Saloun zeudela eta poliki-poliki harutz jutia. Lleidan erreka ondoko zelai baten nauala zubipian lo itxen zeber afrikano batzuk ezautu nitxun.

**Andoitz tanborra motxilan sartu eta trenez abiatu zen esperientzia berriak bizitzera.**

Aspaldixan zeuden euren abestixak kantau gabe eta ikusi zebienian jenbe bat nakala han etorri jatazen. Arratsaldia oso ondo pasau naban eurekin kantuan, autobusa hartzeko ordua ailegau eta Saloura jun nitzan arte. Saloun, apartamentua, eguzkixa eta pistinia, erabat desberdina dana”.

Andoitzek eskaleak nola bizi diren eta zer sentitzen duten jakin nahi zuen baina aitortu digunez, “nere egoeria desberdina zan, ze nik banakixan nahi nabnian etxera bueltatzeko aukeria nakala eta tarjetia naukan boltsikuan”. Merezi izan duen arren, “ez da izan espero nabana eta ez dot atera ezer garbi, horregatik, egunen batian errepikatu ein bihar dot”.




### Afrikaren kolorea eta bizitza

Amagoia Ruiz De Gauna eta Miguel Arozena Kenian izan ziren eztei-bidaian eta Afrikak bete-bete harrapatu zituen. Tunez ezagutu zuten ondoren eta aurten Senegalen astebete pasa dute. European zehar ere dexente ibilitakoak dira eta iaz New York zoragarria bisitatzeko aukera izan zuten. Halere, oraingo honetan Senegalen pasatako asteari buruz berba egiteko deitu diegu.

“Uztaileko lehenengo astian jun ginan eta biaje osua bakarrik ein genduan, gia batekin. Ruta turistikua in biharrian, han zela bizi dian erakutsi zigun. Afrika asko gustatzen jaku, ze koloria eta bizitza daka. Afrikak xarma berezi bat dauka guretzat. Kenian safari fotografiko bat in genduan, animalixak alde guztietan, dokumental baten barruan egotia bezela zan. Senegalen, aldiz, jendiakin harreman zuzena euki gendun.

Mauritania ezagutzeko aukeria ere euki gendun, desertua. Mauritaniatik Senegalera juten dia erosketak itxera eta gero zain egoten dia aber noiz urtetzen dan turistak kamioi bat bueltatzeko. Gure kamioian 8 edo 9 jun zian eta bakoitza bere kanpamentuan lagatzen jun ginan eta zela bizi dian ikusi ahal izan genduan. Dakar-en ikusi gendun Afrika beltzetik hartutako esklabuak nun gordetzen zitxuen Amerikara eramanez aurretik. Inpresia itxen zaban haura ikustiak eta nola garai ba-



Amagoia eta Migelek astebete pasa zuten Senegalen.

tian inguru dana urakin zauan eta tibu-roiz beteta, bateronbategi ihes itxia intentatzen bazaban. San Luisen ere egon ginan. Garai batian oso hiri inportante eta aberatsa izan zan eta etxe oso-oso politzak zeuden, kolonialak. Oin gauzak asko aldatu dia eta han ez da jauntxorik bizi, jende normala baizik. Eraikuntzetan ere igartzen da dekadentzia hori baina hirixak ondiokan badaka xarma berezi bat. Gau bat parke natural batian pasau genduan. Lur zati luze eta estu bat zan eta alde batera Senegal errekiak zakan eta bestera Atlantiko itsasua. Kriston hondartza luzia zan, amaierarik ikusten ez jakuen horietakua eta gu bakarrik geunden, beste inor ere ez zan inun ikusten. Sekula ez gera hain bakarrik egon, ze ixiltasun... Dakar-en iparraldian dauan Lago Rosa izeneko toki bat ere ezagutu gendun. Gatzet betetako laku bat da eta izen hori daka ze itxuria eguzkixan erreflejuakin kolore hori ikusten da. Guri ez jakun tokau, ze lainotuta zauan. Azkenengo egunak Saly izeneko hondartza baten pasau genduan, oso toki turistikua da eta hor pasatzen dau uda Dakar-eko jende aberatsak. Ez zakan zerikusirik ordurarte ikusitakua-kin”.

Bikote honek urtean zehar dirua aurreratzen du hainbat bidaija egin ahal izateko. Hurrena Egiptora joan nahi dute, “eta gero Hego Amerika aldera juten hastia gustauko jakun”. Kontua, herrialde eta kultura desberdinak eza-gutzea da.



### Kubara brigadetan

Hirugarren bidaija ere oso bestelakoa dugu. Izan ere, Ane Zabala eta Idoia Txurrukak, ohiko turismoa egiteko eratik ihesi, KI (Komite Internazionalistak) erakundearen eskutik Kubara joateko aukera izan zuten. Idoia eta Anek beste hainbat kiderekin batera herrialde ezberdinetan aritzen diren brigada batean hartu zuten parte. Saua La Grande izeneko hirian hiru aste pasa zituzten eta azken astea La Habanan egin zuten. Herritarrekin solidaritatea azaltzea eta han ikusi eta bizitakoaren berri hemen ematea du helburu KI erakundeak.

“Gure eginkizuna umientzat eskola bat eraikitzea zan. Aurrekontu bat zauan eta guk eskulana jarri gendun, hormak raskau eta pintau genitxun.

Goizeko 7:30ak aldera jaiki, gosaldia eta lanian hasten ginan bazkaldu arte. Arratsaldero ekintza desberdinak zakaguzen. Normalian bertako kolektibo desberdinekin txarlarak izaten zian: emakumiekin, konbatiente ohi batekin, santero batekin... Bisitak ere itxen genitxun, kooperatibak ikusi, zentral azukareruak eta hola. Astebukaeretan ez genduan lanik eukitzen eta normalian eskursiua antolatzen zizkiguten. Cuban arazo haundi bat konbustiblia

Argazkiaren azpiko aldean Idoia eta Ane Cuban, beste brigadista batzuekin.



ke sobietikua jausi zanetik egoeriak txarrera in dau. Danetik ezautu genduan, bai balsetan Floridara ihes indako jendia zaken familixak eta baitxa Cubatik sekula alde ingo ez zabela esaten zebenak ere. Ikuspegi diferentia daude eta kontradikzio asko.

Hala ere, oso desberdina da bizi-modua herrixetan edo La Habanan. La Habanan turista asko dao eta hango jende asko, argi eta garbi, turisteri dollarrak etartzera dixez. Guk La Habanan turismua in gendun baina ezagunen etxian egon ginan, kubatarren etxian. Oso esperientzia positibua izan da eta edozeini gomendatuko genioke joateko, bakarrik, lagunekin... Jendia oso irekixa da eta asko eskertzen dute hara joatea, nola bizi diren ikustea, euren gauzak entzuteko prest dauan jendiakin elkartzia... Guk ezagutu gendun gizon bat abeslarixa izan zana eta bere etxera sartu eta boleruak kantau zizkiguna, esaterako. Danetik topatzen dozu baina, batez ere, berriz bueltatzeko goguakin etortzen zera, eta hori seinale ona da".

izaten da baina guk autobus bat zaka-gun eta inguruak ikusteko eta hondartzara juteko aprobetxatzen gendun.

Bai brigadetan eta baitxa bizi ginan etxietan ere kubatarrekin geunden eta

gertutik ezagutu gendun zela bizi dian, zer pentsatzen daben... Nahiko garbi ikusten da zaharrak iraultziakin bat datozen bitxartian, gaztiak nahiko kontra daudela eta, egixa esan, 1989xan blo-

## ● Inazio Bereziartua

### Klaseak IRAILAREN 14an hasiko dira

**TALDEKO KLASEEN ORDU**  
eta **EGUNAK** (koralak, lenguaia  
musikala eta dantza ikastaroa)  
Aita Agirre plazako eta  
Merkatu Plazako iragarki  
tauletan daude.

**INSTRUMENTUEI**  
**DAGOKIONEZ,**  
ostegunean ordutegia  
jaso ez zutenei,  
astelehenean, hilak 14,  
banatuko zaie.


Abesten edo instrumenturen bat jotzen ikasi nahi duen guztiak, Musikeskolan eman dezake izena inolako adin mugarik gabe.



INFORMAZIO GEHIAGO: Aita agirre plaza 3 - 1 (ordutegia: 5-7) Tel: 943 74 21 45



# Zer iruditzen zaizu *EUSKAL* *HERRITARROK* plataforma sortzea?



**PEDRO ZUBIZARRETA**  
67 urte, jubilatua

Ni hortan ez naiz sartzen. Entzun dot zeozer baina zer nahi daben eta zertarako sortu dan ez dakitx. Politikia ez jata interesatzen.



**ASIER ORBEA**  
29 urte, lokutorea

Ezin dot iritzirik eman ze entzun ere ez dot ein alderdi politiko bat sortu danik. Politika mundua ez jata batiere interesatzen.



**ASUN TOLEDANO**  
62 urte, etxekoandrea

Zerbait entzun dut. Ez dakit zer egingo duten, onerako izatea gustatuko litzaidake, nori ez? Zerbait berria ekartzen badute, ongi-etorri.



**M. MERCEDES ARREGI**  
52 urte, etxekoandrea

Ojala onerako balitz. Zentzu piska bat daukanak nahiko leuke onerako izatia. Neretzat, hala ere, politikia baino gauza zikinaorik ez dao.



**JAVIER ABAD**  
38 urte, espezialista

Lehendabizi, sigla aldaketa horren atzean zer dagoen ikusi behar da: zer sistema dararmaten, zer eskaintzen duten,... Espero dut herriarentzat zerbait berria ekartzea.



**CARMEN BRUNO**  
30 urte, etxekoandrea

Nire ustez, siglak aldatu dituzte baina atzean gauza bera dago. Gehiegi ez dakit baina, entzun dudanez, lehengo jarrera berbera mantentzen dute.



**EUSKO JAULARITZA**

HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA

**Otaola hiribidea, 29**

**TEL. 943 20 06 48 EIBAR**

Aurten "Mailakatze-azterketak" egingo ditugu bai frantsesean, bai ingelesean, bai euskarari, inolako Hizkuntza Eskolako kurtsorik gaindituta izan gabe, ezagupenak dituzten eta Eskolan sartzeko interesatuta daudenentzat zuzenduak. Froga hauen datak honako hauek izango dira:

**Frantsesa:** asteartea, irailaren 15ean, 11:00etan.

**Ingelesa:** asteazkena, irailaren 16an, 12:30etan.

**Euskera:** osteguna, irailaren 17an, 13:00etan.

Azterketa hauek egin nahi dituztenek eskolara deitu beharko dute aldez aurretik bere izen-deiturak N.A.N.a, etab... emateko.

## ● Alde zahararren ikerketa egiteko asmoa du Udalak

Udalak herriko alde zahararren ikerketa sozio-urbanistikoa eta Altzolako auzoaren ikerketa ekonomiko-finantzieroa eta ekintza plana egiteko asmoa du. Eusko Jaurlaritzak 4,2 milioi pta.tik gorako dirulaguntza emango du ikerketa hauek egin ahal izateko. Diru honi esker, ikerketen %90a ordainduko da. Zatik handiena, 3,5 milioi hain zuzen, Elgoibarko alde zahararren ikerketa sozio-urbanistikoa egiteko erabiliko da. Lan honen egilea hiru hilabeteko epean aukeratu beharko du Udalak. Aukeraturakoak, berriz, bost hilabeteko epea izango du Elgoibarko alde zahararren ikerketa egiteko. Altzolako auzoaren ikerketa ekonomiko-finantzieroa eta ekintza plana martxan jartzeko 788.000 pta. emango ditu Jaurlaritzak.

## ● Matrikulazioa zabalik AFK euskaltegian

Esan zeuk ere Bai Euskarari! lemapean, AEK euskaltegiak 98/99 ikasturterako matrikula zabalik dauka hil honen 25era arte. Langabetuek eta ikasleek matrikula erdia ordainduko dute, Udalaren laguntza dela medio. Argibide gehigorako Aita Agirre plazako bulegora hurbildu edo 943 74 13 32 zenbakira deitu.

## ● Ikasturte hasiera Herri Institutuan

Astelehenean, hilak 14, Herri Institutuko DBHko ikasleek ikasturte berria hasiko dute goizeko 11:00etan. Hezkuntza Zikloetako ikasleak hilaren 18an (ostirala) hasiko dira goizeko 10:00etan. LOGSE lekoak egun berean hasiko dira 10:30ean eta LOGSE 2koak goizeko 11:00etan.

## Arnaldo Otegi, Euskal Herriarrok-eko Gipuzkoako zerrendaburua da

Elgoibartarraren ustez, "hauteskunde hauek irabazi egingo ditugu"

**O**rain gutxi aurkeztu berri den 'Euskal Herriarrok' hauteskunde elkarteko hautagaien artean elgoibartar bat dago, Arnaldo Otegi. Gipuzkoako zerrendaburua da 40 urteko elgoibartar hau. Duela urtebete gutxi gorabehera, HBko Mahai Nazionala gartzelaratu zutenean, Arnaldo Mahai Nazional berriko kidea eta bozeramailea izatera pasatu zen. *Euskal Herriarrok* elkartearen agerpenarekin, Gipuzkoako zerrendan lehendabiziko hautagaia da. Arnaldoren esanetan, "honek ez du esan nahi HB desagertuko denik. Urte batzuk daramatzagu azterketa politiko sakona egiten eta Estatutoa hilda dagoela uste dugu. Hortaz, abertzaleok eta ezker abertzalekoak ez diren zenbait sektorek bat egin behar dutela ikusi dugu, kolaborazio esparruak sortuz. Beti ere, lurraldetasunean, autodeterminazio eskubidean, modelo so-



zial alternatiboan eta gatazka armatuak irtenbide demokratikoa behar duen printzipioetan oinarritutako esparruak". Arnaldo Otegiren ustetan, "hauteskunde baskongado hauek irabazi egingo ditugu, esperan-tzarako ate bat irekiko baita". Legearen arabera, *Euskal Herriarrok* hauteskunde elkarteak

20.000 sinadura behar ditu hauteskundee-tan aurkeztu ahal izateko. "Jasotzen ari diren sinaduren kopuruak izugarriak dira, espektatiba handiak ditugu". Euskal Herriarrok HBko kideez, hainbat indar sindikatetako kideez (CCOO, ELA, ENHE...) eta pertsonaia publiko ezagunez (Fermin Muguruza, La Polla taldeko Evaristo, Euskal Idazleen Elkarteko lehendakaria...) etab.ez osatua dago.

## 17.000 ikusle izan dira aire libreko zinean

'Titanic' eta 'Full Monty' izan dira pelikula ikusienak

**O**ngarri Zine Klubeko kideak oso pozik azaldu dira aurtengo uztailean eta abuztuan zehar antolatutako aire libreko zineak izan duen harrerarekin. Eurek emandako datuen arabera, "guztira 17.000 lagun izan dira aire libreko emankizunetan. Gainera, eguraldi ona egin du eta horrek beti laguntzen du". Izan ere, bi pelikula bakarrik errepikatu behar izan dira euriarengatik. Uztailean udako pelikula komertzialak izan dira Plaza Handian eskaini dituztenak, "Herriko Antzokian nekez emango zirenak". Abuztuan, berriz, arrakasta handiko pelikulen emankizunak izan dira. "Full Monty eta Titanic pelikulen arrakasta azpimarratu nahi dugu. Benetan poztu ginen Titanic eman genuen egunean Plazaren itxura ikustean, dena bete-beteta, jendea etxetik ekarritako aukietan eserita,... nahiz eta 3 ordu eta 15 minutuko iraupena izan. Gustu guztien neurriko zinea antolatzeari lortu dugula uste dugu".

Ongarri Zine Klubeko kideek eskerrak luzatu nahi dizkiete saioetara joan diren




pertsona guztiei, baita Kultura Sailari ere pelikulak ekartzeko aurrekontua handitze-arengatik eta, "orokorrean, urte hauetan zehar lagundu eta animoak eman dizkiguten guztiei". Datorren urtean aire libreko zineak 10. urteurrena beteko du eta "zenbait gauza berri egitea nahi dugu, erronka handia izango da guretzat". Era berean, datorren urrian Zine Klubari hasiera emango diotela aditzera eman nahi dute. "10. urteurren honen barruan kokatuko dugu, beraz, adi egon, sorpresak egingo dira eta".

## 1.250 txerto jarriko dira gripearen aurkako kanpainan

Elgoibarko Osasun Zentroko erizainek azaldu digutenez, gripearen aurkako urteroko txerto kanpaina hil honen 14an hasi eta urriaren 30era bitartean luzatuko da. 65 urtetik gorako guztiei txertoa edo bakuna jasotzea gomendatzen zaie, baita gaixotasun sendaezinak dituzten 65 urtetik beherakoei ere: bihotzekoa dutenak, gaixo hepatikoak, bronkioetako gaixo kronikoak eta giltzurrunetako gaitza dutenak. Txertoa jasotzeko ez da aurrez deitu behar, goizeko 9:00etatik 13:00etara bitartean

Osasun Zentrora joan eta jartzeko eskatu. Iaz bezala, erizainak Altzolara eta baserrietara joango dira txertoak ematera. Eguna eta ordua garaiz jakinaraziko dute.

Aurten 1.250 txerto jarriko dira Elgoibarren. Besoan ipintzen da, eta ez du apenas minik ematen. Gogoratu, ezin dutela txertorik jaso oilaskoaren proteinaren, arrautzen, neomizinen eta polimixina sustantzien hipersentsibilitatea dutenek. Sukarra edo infekzioa edukiz gero ere, ezin daiteke jaso. Txertoa jarri ostean, gorritasuna, min apur bat edo gogorreraren bat ager daiteke ziztatutako lekuan. Inoiz, sukarra, ondoeza eta hotzikarak ager daitezke.



## Elgoibarren ibiltzeko mapa

Elgoibarko kale eta auzoen izendegia eta hauen kokaleku zehatza azaltzen duen mapa jarri du Udalak San Frantzisko iturriaren atzean. Kale bakoitza non dagoen jakiteko modurik zehatzena eskaintzen du mapa honek, batez ere kanpotik datozenei. Atzeko alde momentuz libre dago baina, jakin dugunez, Deba Beheko mapa bat jartzeko asmoa dute bertan.



## ● 7,7 milioi batu dira Vickyren alde

Vicky Alcalde elgoibartarraren alde egindako diru bilketan 7.700.000 pta. batu dira. Hauetatik 3,2 milioi errifan salmentari esker lortu dira eta gainerako 3,5 milioi donazioak dira. Errifan zozketa joan den uztailaren 24an egin zen baina oraindik ez da lehenengo sariaren jabea agertu. Zerbaki irabazlea 15.651 da eta Ikastolako Guraso Egunean saldu zen. Erretserbakoa 19.559 zerbakia da, Eibarko jaietan saldutako. Ez bata ez bestea agertu ezean, berriz egingo litzateke zozketa, beraz, txartelak gorde. Vickyren Lagunek bihotzez eskertu nahi dute jasotako laguntza eta elkartasuna. “Denon artean lortu dugu Vicky Aita Meni ospitalean egotea. Dagoeneko errehabilitazio programan aurrera egin du eta medikuek beste hiru hilabeteko errehabilitazio intentsioa jasotzeko gomendatu diote”.

## ● Haritz Dantzari Taldea, Miarritzeko Dantza Jaialdian

Irailaren 4tik 19ra bitartean Miarritzen ‘Kulturaldia’ deritzon jaialdia ospatzen dute. Era guztietako dantza taldeek hartzen dute parte eta horietako bat Elgoibarko Haritz Dantzari Taldea da. Dantza tradizionalari buruzko emanaldian, Gipuzkoako dantzak eskainiko dituzte elgoibartarrek. Haritzekin batera, Iruñeako Ortazar taldeak hartuko du parte, guztira 60 bat dantzari izango direlarik. Saioa domekan, hilak 13, izango da Miarritzeko Casino Municipal antzokian.

## ● San Lorentzo jaietako errifa

Aurtengo San Lorentzoko jaietan saldu ziren errifetatik 54.108 zerbakiak jaso du lehen saria. Aipaturiko zerbakia Markina-Etxeberriko Oizumo baserrikoek erosi omen zuten eta hauek jasoko dute 200.000 pta.ko saria.

## ● Helduen Heziketarako matrikula

EPA edo Helduen Heziketarako Zentroan matrikulatzeko epea irail osoan zehar dago irekita. Maila guztietan eman daiteke izena: oinarritzko mailatik hasita Bigarren Hezkuntzako Graduatu mailara arte. Era berean, unibertsitateko sarrera azterketa 25 urtetik gorakoentzat eta LH1eko azterketak prestatzeko klaseak ere emango dira. Matrikulatzeko Pedro Muguruzako ikastetxera zuzendu 10:00etatik 13:00era bitartean edo 16:30etik 19:30era. Zehaztasunik behar izanez gero 943 74 08 80 zerbakira deitu.

## ● Soldaduzkarako zerrrendak

1998ko errenplazoen zerrrendak Udaletxeko Idazkaritza sailean ikus daitezke hilaren 15era arte. 1999an soldaduzkara joan behar duten herriko gazteen zerrenda da aipatutakoa. Datuak oker egonez gero erreklamazioak egin daitezke.

## ● 98/99 ikasturtea Musikeskolan

Inazio Bereziartua Musikeskolak hilaren 14an emango dio hasiera 98/99 ikasturteari, ikasle bakoitzak dagokion ordutegiaren arabera egingo duelarik. Dagoeneko, instrumentuen, lengoia musikal ikasgaiaren eta ikasgai osagarrien klaseen ordutegia zehaztuta dago iragarkien taulan. Taldeko entsaioen ordutegia honela izango da: akordeoi taldea asteazkenean (17:30-19:00) eta ostiralean (16:45-18:15); korda taldea ostiralean (19:00-20:30); txistu taldea ostegunean (17:00-18:30) eta banda ostegunean (20:00-21:30). Dantza Eskolako ikasleak astelehenetan, hilak 14, Merkatu Plazan elkartuko dira: 1., (mutilak eta neskek) 2., 3., 4., eta 5. mailetako taldeak 18:30ean; mutilak 19:00etan eta 6., 7., 8., 9. eta 10. mailakoak 19:30ean.



EUSKO JAULARITZA

HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA

Otaola hiribidea, 29

TEL. 943 20 06 48 EIBAR

## MATRIKULA OFIZIALA 1998-99

### MATRIKULA SOBREAK JASOTZEKO ETA PLAZA HARTZEKO EGUNA

#### 1. TXANDA

97-98 ikasturtean Eskolako ikasle ofizialak izan direnak. Klasera huts egiteagatik ofizialtasuna galdu dutenak txanda honetatik kanpo geratzen dira.

**Irailak 16**, goizez: 1.tik 5.era ingelesa, frantsesa eta euskara.

**Irailak 17**, goizez: 1.tik 5 era ingelesa.

#### 2. TXANDA

Ofizialtasuna galdu duten ikasleak eta ofizialak izatera pasa diren ikasle libreak.

**Irailak 18**, goizez: 1.tik 5.era ingelesa, frantsesa eta euskara.

#### 3. TXANDA

Ikasle berriak H.E.O.etan inoiz matrikulatu izan ez direnak eta mailakatze- azterketak egin dituzten ikasleak.

**Irailak 21**, goizez: 1.tik 3.era ingelesa, frantsesa eta euskara  
(18 urtetik gorakoak).

arratsaldez: 1.tik 3.era ingelesa, frantsesa eta euskara  
(16 urtetik gorakoak).

**Irailak 22**, goizez: 1.tik 3.era ingelesa, frantsesa eta euskara  
(16 eta 14 artean).

#### OHARRAK:

- ✓ Matrikula egiteko beharrezkoa da NANA edo eskatu denaren ziurtagiria aurkeztea.
- ✓ Ikasle ofizial eta libreek H.E.O.eko agiria aurkeztu beharko dute.
- ✓ Matrikula, sobrean jartzen duen egun eta orduan egin behar da.
- ✓ Maila batean matrikula egin ahal izateko, aurreko maila gainditua izan behar da.
- ✓ 97-98 ikasturtean Zikloko azterketa egin dutenek bakarrik egin ahal izango dute matrikula hizkuntza bereko maila desberdinetan, azterketa horretarako notak ikaslearen maila adieraziko duelarik.
- ✓ Bulego ordutegia: 9:30 - 13:00 Ostiraletan: 9:30-13:00
- ✓ Plazak emateko orduan kontuan hartuko da izena emateko ordena.

## Baserritarren egun handia


*Irailen sartuak gaude eta guri ere iritsi zaigu ordua abuztuan zehar gertatutakoen berri emateko, horien artean San Bartolome jaiak eta, nola ez, Baserritarren Eguna.*

**E** aguraldi polita izan zen goizean goiz hasita, sargori aukeran askorentzat. Kontua da eguerdi partera hasi zirela hurreratzen baserritar eta bisitari gehienak. Aurten, gainera, Euskadiko VI. Limousin Lehiaketa ospatu da Elgoibarren eta horrek giro berezia jarri zuen jaietan. Izan ere, ostiraletik ikus zitezkeen hainbat eta hainbat limousin buru Plaza Txikian, zein baino zein eder eta ikusgarriagoak, baserritarrek txukun eta garbi mantentzen ahalegindu zirelarik egun osoan zehar. Esan beharra dago, txapelketa hau dela-eta, gogor lan egin behar izan zutela DEBEMENeko brigadako langileek Plaza Txikia behar bezala

egokitzeko. DEBEMENetik, gainera, eskerrak eman nahi dizkiete zeregin horretan lagundu zuten bolondres guztiei, bereziki San Roke eta San Migelekoei, Armuetakoei eta Udaletxeko Brigadako langileei.

Dena dela, Limousin txapelketaz gain, beste hainbat eta hainbat ekitaldi ere izan zen ikusgai egun osoan zehar. Esaterako, ohi denez, urtero bezala, sagardo lehiaketa ere izan zen eta, ondorioz, Foruen Enparantza jendez gainezka egon zen sagardo dastaketak iraun zuen bitartean. Ziarda, Narbaiza eta Azpillaga bertsolariak ederki aritu ziren bertso sorta edarra eskainiz. Kaleetan zehar trikitilarien soinua entzuteko aukera izan zen eta arratsalde partera, herri kirolak ikusteko gogoz hainbat herritar elkartu zen Plaza Haundian.

Baserritarrek Elgoibarren izango dute hurrengo topagunea Gabon Zahar ferian.



### Euskadiko VI. Limousin Lehiaketa

7 eta 20 hilabetekoak . . . . .	Fernando Heras, Zalla
10 eta 11 hilabetekoak . . . . .	Aldalur anaiak, Tolosa
12 eta 13 hilabetekoak . . . . .	Aldalur anaiak
21 eta 26 hilabetekoak . . . . .	Aldalur anaiak, Tolosa
27 eta 36 hilabete bitartekoak . . . . .	Joan Arruti, Beizama
37 eta 47 hilabetekoak . . . . .	Jon Arruti
4 eta 5 urte bitartekoak . . . . .	Juan Altuna, Usurbil
6 urtetik gorako behiak . . . . .	Jon Arruti, Beizama
24 hilabeteik beherako zezenak . . . . .	Jon Aldalur
25 eta 48 hilabetekoak . . . . .	Jon Arruti
48 hilabetetik gorakoak . . . . .	Elgarresta, Urretxu
'Aberekin' saria (behiak) . . . . .	Jon Arruti
'Aberekin' saria (zezenak) . . . . .	Elgarresta

### Sagardo lehiaketa


- 1- Rezola, Astigarraga.
- 2- Lizeaga, Astigarraga.
- 3- Satxota, Aia.



**H**ona hemen Baserritarren Eguna eman zuenaren berri argazkietan isladatua. Urtez urte badi-rudi gauzak ez direla aldatzen baina antolatutakoa denen gustukoa bada, zertarako aldatzen hasi? Kontua da, San Bartolome jaietan orohar eta Baserritarren Egunean konkretuki, giroa ezin hobea izan zela, hasi goizean eta gaueko ordu txikiak arte.

Ondoko irudietan bertsolariak, Limousin txapelketan parte hartu zuten hainbat buru, sagardo eta txorizo dastaketa, trikitilariak, herri kirolak eta abar ikus ditzakegu. Horietakoren batean ziur gehien-gehienek hartu zutela parte. Tira, ondo pasatakoak hortxe geratzen dira. Hurrengo urtera arte zain egon behar San Bartolome jaietako Baserritarren eguna iritsi arte.





# MULTI OPTICAS UZURI (FOTOLITOA)

PELLO RUBIO:

**“Ekainian erre zan Artazo baserrixan aldeko dirubiltziakin hasi gera”**

*1998ko ekainaren 20a sekula ez dute ahaztuko Artazo baserrikoek. Egun horretan su hartu zuen baserriak eta goitik behera erre zen. Hiru hilabete pasa dira ordutik eta auzokideak hasi dira baserria berreraikitze behar den dirulaguntzaren bila. Horretarako Artazo Baserriaren Aldeko Batzordea sortu dute. Pello Rubio da San Lorentzo bailarako alkatea eta berarekin izan gara gauza asko eta asko antolatut baitituzte datozen hilabeteotarako.*

— **San Bartolome jaietan ikus ahal izan genuen Artazo baserriaren aldeko lehen urratsa.**

- Bai, hala da. Zela sagardo lehiaketa guk antolatzen dogun, egun hori aprobetxatu genduan Artazo baserrixan aldeko kartela Plaza Haundixan jarri eta jendiari dirubiltzia hasi dogula jakinarazteko. Alde bateatik, Edu Arrillagak atera daban liburuan ale batzuk eman dizkigu eta horiek 1.000 pta.tan jarri genitxun salgai. Horrez gain, 10.000 errifa atera ditzugu. 200 pta.tan jarri doguz salgai eta sarixa bi lagunentzako 8 eguneko bidaia Mallorcara da. Kontu korronte zenbaki bat ere badao zabalik banketxe guztietan edozeinek dirulaguntza zuzenean sartu nahi badu.


— **Urriaren 4an Ardi Txakurren lehiaketa izango da.**

- Bai. Hasieran irailan 13rako zakagun jarritxa eguna baina beste gauza batzuk tokau diaz parian eta urrian 4ra pasatzia erabaki genduan. San Lorentzon bertan izango da eta Espainiako, Euskadiko eta Gipuzkoako txapeldunek hartuko dabe parte. San Lorentzotik Osorok hartuko dau parte. Ikusgarri izango dala pentsatzen dot. Jendiak sarrerria ordaindu biharko dau, 700-800 pta. inguru, eta dirua Artazo baserrixantzat izango da. Nahiko genduke lehiaketa hau beste urte batzuetan ere berriz antolatzia.

— **San Migelen Idi Probaren bat antolatzekotan omen dira.**

- Bai, urrian 18rako. Etaratzen dan dirua Artazo baserrixantzat izango da.

— **Beste jaialdi erraldoiren batekin ere bazabiltza-**



**te bueltaka.**

- Bai, Elgoibarko Izarra eta Haritzekin batera nahi degu abenduan 18rako Herriko Antzokian jaialdi bat antolatzia. Ondiokan gauzak zehazteke daude baina herriko bertsolarixek, dantzariyek, “Duo plaentxi”k, Gelatxok eta beste hainbatek parte hartzia da asmu.

— **Zenbat diru batzea espero duzue?**

- Gauzak ondo ertetzen badira 4 milioi inguru. Asmua, Artazo baserrixantzat dirubiltzia egitiaz gain, baserriko mundua eta ohiturak herritarrei erakustia da.

— **Hasi al dira Artazo baserria berreraikitzen?**

- Bai, txaboliakin hasi dia. Aurrerao auzolana biharko da danen artian eraikitzeke etxia. Nahi genduke hau dana abiapuntua izatia eta aurrera begira beste edozein baserrixan holako zeozer pasauko balitz, oin hasitxako soka honek jarraipena eukitzia eta danak elkartzia bihar dabanari laguntza eskaintzeko.

**“Artazo baserrixan alde irailaren 13rako antolatuta zakagun Artazo Txakurren Lehiaketa urrian 4an izango da San Lorentzon”.**

**ARRAÑAGA**  
A U T O E S K O L A

Santa Ana, 11 • Tel: 943 74 10 11

hiprobetentzu udalbidia gida  
bainmena aterabeko

bena ematerakoan %10eko  
beherapena gaste  
txartelarekin



*San Bartolome kalean jaio zen duela 80 urte. Pilar Arregi Garatek Mexikora alde egin behar izan zuen duela 30 urte baino gehiago senarrarekin eta bi alabekin. Lagun batek esan zion behin, itzuli nahi bazuten alabek 14 urte bete aurretik egin behar zutela, gero beranduegi izango zelako. Eta hala izan zen. Bi alabak ezkondu egin ziren, sei biloba ditu eta birramona ere egin berri da. Pilar ez da Elgoibarrera bueltatuko hemen bizi izatera baina urtero, uda partera, bisitatxoa egiten du.*

PILAR ARREGI

## “Mexikora jutia liberazio bat izan zan”

– Ezkondu eta berehala gerra kontuak zirela-eta alde egin behar izan zenuen.

- Bai. Senarra eta bixok, Pirineuak oinez pasauta Frantziara ailegau ginan. Han konzentrazio kanpo baten egon ginan Telesforo Monzonek etara gintxun arte. Frantzian jaixo zan lelengo alabia eta bigarrenan zain neuala, Irunen bueltan gentozela, senarra Miranda de Ebrora bialdu zeben eta ni Elgoibarrera etorri nitzan. Ixa urte eta erdi in naban senarra berriz ikusi be.

– Urte batzuk geroago Mexikora joan zineten.

- Hala izan zan, bai. Arazo batzuk sortu ziazen eta zela nere senarran arreba bat Mexikon bizi zan hara jutia erabaki genduan. Papeleo guztixa ein genduan eta alaba bixak hartuta Mexikoko kapitalera juan

ginan. Senarrak hemen Alfán lan itxen zaban eta Mexikon ere josteko makinak itxen in zaban biharra.

– Gogorra izan al zen?

- Onera in genduan. Nerezat Mexikora jutia liberazio bat izan zan. Hemen, razionamendu kartiliakin geunden eta han danetik zakagun. Gainera, hasieratik biharra euki zaban gizonak eta alabak ere nahiko txikiak zianez erraz ohitxu zian.

– Ohitu eta bertakotu, ezta?

- Harek Mexikon in dabe familixia. Han ezkondu dia, seme-alabak euki ditxue... Hortik aurrera oso zaila da berriz bueltatzia. Danak egon dia behin edo behin Elgoibarren eta asko gustatzen jakue baina euren bizimodua Mexikon dao.

– Eta zurea?

- Gaur egunian neria ere bai. Zenbat bider esan izan

zaban senarrak herrimina ez zala sekula galtzen! Zelako egi haundixa dan hori baina... Oin nere alabak han daude, bilobak baitxa ere... Zela lagako ditzudaz hona etortzeko bizitzera. Ezin dot!

– Halere, bizimodua oso desberdina izango da, ez?

- Oso desberdina, bai. Gainera gauzak asko aldatu dia. Mexikon nauanian ixa ez naiz etxetik urtetzen. Hemen, berriz, goizian goiz kalera urten, bankoren baten jarri, jendiakin berba ein.... Neure biloba bat etorri zan behin eta San Bartolome jaixak ere hemen in zitxuan. Berak Elgoibarren bizi nahi zabala esan zian! Goizeko 3etan kalia tranquil-trankil ibiltzeko aukeria dao eta...

– Euskara oso ondo mantendu duzu, Pilar.

- Bai, nik ez dot ahaztu. Gainera, Mexikon Euskal Etxian ibiltzen ginan, alabak ere dantza taldian zeuden eta gure lagunak euskaldunak dia. Alabek ulertzen dabe euskaria nahiz eta barbarik ein ez. Hori bai, bilobek amama deitzen die, hori behintzat ez kentzeko neri. Ez dot ulertzen zela Elgoibarren nere dedadeko jende euskaldunak erderaz eitxen daban berba. Ni kanpora jun eta eurek baino euskera gehixo dakitx eta!

– Hilaren 13an zoaz. Datorren urtera arte, ez?

- Osasunakin banao, horixe baietz! Batzuk esaten die eurak ez ziala sekula jungo Mexikora bizitzera. Ai, hori esaten dabenak pribilejiauak dia ez zabelako biharrik euki. Inork ez dau bere herrixa nahi dabalako lagatzen.



●●● JAIOTAKOAK ●●●

- Cristina Parras Maldonado (Uztailak 3)
- Mikel Artetxe Ortiz de Urbina (Uztailak 10)
- Irati Arritokieta Serrano Criado (Uztailak 14)
- Goizeder Etxeberria Larreina (Uztailak 18)
- Janire Fernández Domínguez (Uztailak 22)

●● EZKONDUTAKOAK ●●

- Javier Rodrigo Abril eta Sonia Morales Borreguero (Uztailak 4)
- Manuel Cobos Fernández eta Elena Eguren Iriondo (Uztailak 4)
- Manuel Benítez Espada eta María José Marvar Cid (Uztailak 25)
- Jose Moriano Delgado eta María Dolores Tapia Ortega (Uztailak 25)
- Ernesto José Centeno García eta María del Carmen Granero Ledo (Uztailak 25)
- Gilberto Pérez Barrio eta Nekane Canabal Retana (Uztailak 30)

●●●● HILDAKOAK ●●●●

- Alberto Martín Moreno, 27 urte (Uztailak 4)
- Aurelio Vilarchao González, 68 urte (Uztailak 15)
- Julian Martín Garzón, 71 urte (Uztailak 15)
- Jesus Barrenetxea Arakistain, 73 urte (Uztailak 16)
- Francisco M. Zabala Bernedo, 71 urte (Uztailak 22)

**Mariano Retolaza Larreategi**  
**(1898-1970)**



**OHARRA:** Espazio faltarengatik aste honetan uztailleko zerrenda bakarrik jarri dugu. Datorren astean abuztuakoa argitaratuko dugu.

- 1898ko urriaren 17an jaio zen Madalako Errezabal etxean, Ongarri egon zen lekuan.
- Zazpi anai-arrebaren artetik bosgarrena zen.
- Eskola publikoetan ibili zen eta gazte sa-soia auzoko mutikoekin jolasean eta kirola egiten pasatu zuen.
- Gaztea zela Eibarren lanean hasi zen pistolak muntatzen. Geroago armagin lanbidea ikasi zuen.
- Soldaduzka Afrikako gerran egitea egokitu zitzaion, Xauen herrian eta armagina zenez, ametralladoreentzako lan mordoia egin zuen. 3 urte eman zituen bertan, garai hari buruz nahiko oroitzapen tristea geratu zitzaiolarik.
- Handik bueltan, asko kostatu zitzaion hemengo bizimodura ohitzea. Bazuen anekdotata bat: Afrikan lurrian lo egitera ohituta zegoenez, asko kostatu zitzaion ohe bigunean lo egitera ohitzea, horregatik, hasieran ohe gogorrean etzaten zen.
- Ondoren Mendaroko Rafaela Mendikuterekin ezkondu eta 4 seme-alaba izan zituzten.
- Arrietaneko telarrean hasi zen lanean. Ondoren Alkortako telarrera joan zen, ardura-dun karguarekin. Alkortako oihala eta kotoia asko saltzen zen Azkoitian, Errioxan eta Nafarroan.
- Gogokoa zuen zinera joatea, kuadrilarekin meriendak egitea eta Eibarko Astelena frontoian pilota partiduak ikustea. Jubilatuta arte zumitza lantzen aritu zen.
- Herritar ezaguna zen Mariano. Sinesmenduna, famili girokoa eta patxarosoia. Mendira joatea gustatzen zitzaion, irakurtzea, kuadrilarekin paseatzea eta Untzon tabernan takiloa egitea.
- 1970eko otsailaren 17an hil zen 72 urterekin.

**Juanito Gorostiza**



**ETXEBERRIA**

**Hileta zerbitzu**


**OSOA ETA 24 ORDUKOA**

**KUTXAK - TRASLADOAK - KOROAK**

**NORBANAKOEI ETA KONPAINIEI zuzenduriko zerbitzuak.**

**Donostia eta probintziako eritetxe zentroetan ere bai.**


Santa klara, 16 20 870 ELGOIBAR  
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 56 (Mobila) 908 77 07 01



*Juan Ramon ta Maria  
heldu da egun handia  
Maria ta Juan Ramon  
urduki dabiltz aspaldion  
Juan Ramon ta Maria  
prest duzue kabia  
Maria ta Juan Ramon  
biori mila zorion*



“Maila mantendu laikela uste dotelako hartu dot ardura hau”



## Txomin Arkotxa

- **Adina:** 37 urte.
- **Nongoa zara?** Ondarrutarra.
- **Beste kirolik gustatzen zaizu?**  
Lehen maratoian ibiltzen nitzan. Oin palan batez ere. Eta ikusi, eskubaloia eta saskibaloia ikustia gustatzen gasta.

- **Hilabete eta erdi Haundi entrenatzen. Zein impresio eman dizu taldeak?** - Lanerako gogua badao eta hori inportantia da. Baina bestalde, esperientzia falta ikusten dot. Jende asko dao erregionaletik eta jubenetik ixo dana eta salto handixa da. 2Bn ekipo asko dao ixo profesionalak diazenak. Pretenporadan, adibidez, Eibarren kontra eta Gasteizko Aurreran kontra aldia igarri dou. Hala ere, uste baino zoezer hobia izan da pretenporadia. Ekipuak itxura ona eman dau.

- **Klubak aukera eman dizu taldea osatzeko falta ziren jokalaria hautatzeko.** - Bai, azken batian kanpotik etorri dianak hiru bakarrik dia: Belartietia, Murguruza eta Txasio. Beste bi kanpoko ekipuetatik etorri dia: Loiola eta Leonardo, baina hauek elgoibartarrak dia. 22 jokalaritxik 3 kanportarrak izatia ez da exageraua. Direktiban helburua zan ahal danik eta gehien herriko ekipua izatia baina kanpotik jendia ekartzia biharrezkua zala ikusi dot mailaz ez jaisteko. Askotan etortzen da Tropezon bezelako ekipo bat, inok ez dabana ezautzen, baina ikusten dou guk baino presupuesto handixaua dakala. Orduan preguntia da: ‘hau da gure maila ala behero eon bihar dou?’. Baina klaro, inok ez dau nahi mailaz jaistia.

- **Zein dira zure asmoak 98/99 denboraldirako?** - Kategorixa mantentzia. Lortzen bada eitxen dan lanagatik izango da, ze kalidadia igual ez dou

eukiko Leonesa batek beste baina, bestaldetik, eurak baino gogo gehixo euki ko dou. Azken baten kanpo fubolian lan asko eitxia da kontua. Nere ustez urte inportantia izango da, ze jende gaztia sartu da eta aurten mantentzen bagera datorren urterako pauso inportantia emanda eongo da. Giro ona dao ekipuan eta lanerako disponibildadia ehuneko ehuna. Urte guztian gogo hori mantentzen badou ni konforme.

- **Urte asko daramatzazu futbole-an.** - Ondarrun eta Hamaika Baten jokatuta izan dot. Gero, nahiko gazte hasi nitzan entrenatzen. Ondarrun 6 urte eman nitxun kadetiak entrenatzen, ondoren, errejionaleko Hamaika Baten, gero 5 urte Ondarrun hirugarren mailan, Markinan pare bat urte Artibain eta oin hamen.

- **Lehenengo aldiz 2Bko talde batean.** - Bai, neretzat retua da, ze ikusiko banu ekipuak ez dakala mantentzeko aukerarik ez neuke ardura hau hartuko. Zeoze ein leikela uste dotelako etorri naiz.

- **Hona etorri aurretik ezagutzen zenuen Mintxeta? Eta kluba?** - Zelaixa bai, Aurrerakin etorri nitzan inauguraziuan. Belar artifiziala egokixa da ekipo askok entrenatzeko, baina nik nahixo dot naturala. Hala ere, ohitxu ein bihar, eta kanpoko ekipuak datozenian guretzat bentajia. Klubari buruz, ekipo mordoska daola ikusi dot baina lanerako jende gitxi ote daon inpresiuu dakat, eta ez dakit inpresio zuzena edo okerra dan.

## KIROL ALBISTEAK

### ● **tivo Elgoibar Elkarteko bazkideentzako oharra**

Futbol denboraldia hasi berri dela-eta, Club Deportivoko zuzendaritzak hainbat ohar helarazi nahi die bazkide eta zaletu guztiei. Batetik, Haundi, 1. erregionala eta Jubenil Nazional taldeen partiduetan bazkide txartela aurkeztu beharko da, aipatutako partiduetan sarrera eta tribunako eserlekua kobratuko baitira. Bigarrenik, tribunako

eserlekuak numeratuta daudenez, bazkide txartelaren eta tribunako eserlekuaren zenbakia bat datozela egiaztatu. Horrela ez balitz, zuzendaritzarekin harremanetan jarri. Hirugarrenik, Ohorezko Bazkide modalitateko txartela egin dutenei barkamena eskatu nahi diete bazkide txartel berezirik eman ez zaielako. Datorren denboraldian txartel berezia izango dute. Azkenik, bazkide txartelak Jai Alai tabernan jaso daitezkeela aditzera eman nahi dute.

### ● **Haurrentzako aerobik ikastaroa**

Udal Kirol Patronatuak haurrei zuzenduriko aerobik ikastaroa antolatu du 8 eta 14 urte bitarteko neska-mutilentzat. Klaseak Olaizaga kiroldegian izango dira astelehen eta asteazkenetan arratsaldeko 17:00etatik 18:00etara edo 18:00etatik 19:00etara. Ikastaroaren zenbatekoa 1.200 pta. dira hileko abonatuak direnentzat eta 1.700 pta. hileko abonatuak ez direnentzat. Parte hartu nahi dutenek 943 74 44 15 zenbakira dei dezakete. Ikastaroa hilaren 14an hasiko da.



# HAUNDI

## 2. mailan

### 98-99



**Txomin Arkotxa**  
entrenatzailea  
(Ondarroa)



**Marcos Amado**  
prep. fisikoa  
(Mutriku)



**Igor Prieto**  
atezaina  
(Deba)



**Ion Goikoetxea**  
atezaina  
(Elgoibar)



**Iker Beitia**  
atzelaria  
(Eibar)



**Gaizka Lazarobaster**  
atzelaria  
(Mendaro)



**Iker Leonardo**  
atzelaria  
(Elgoibar)



**Aitor Olabarria**  
atzelaria  
(Markina)



**Gorka Leonardo**  
atzelaria  
(Elgoibar)




**Eneko Barrenetxea**  
erdilaria  
(Eibar)



**Aitor Trebiño**  
erdilaria  
(Eibar)



**Miguel Díaz**  
erdilaria  
(Azkoitia)



**Gorka Belartieta**  
erdilaria  
(Donostia)



**Aitor Gurrutxaga**  
erdilaria  
(Elgoibar)



**Lorenzo Galeano**  
erdilaria  
(Elgoibar)



**Xabier Loiola**  
aurrelaria  
(Elgoibar)



**Ibon Muguruza**  
aurrelaria  
(Eibar)



**Iñigo Araujo**  
aurrelaria  
(Elgoibar)



**Iñigo Iturbe**  
aurrelaria  
(Elgoibar)



**Eugenio Caro**  
aurrelaria  
(Elgoibar)



**Karlos Madina**  
aurrelaria  
(Zarautz)



**Joseba Igartua**  
aurrelaria  
(Elgoibar)



**Mikel Elkoro-Iribe**  
aurrelaria  
(Elgoibar)

**A**buztuko azken asteburuan jokatu zuen Haundik ligako estreinako partidua. Tropezon taldearen aurkako norgehiagokan ez batak ez besteak ez zuten golik sartu. Bigarren partiduan, etxean oraingoan, 0 eta 1 galdu zuten Gasteizko Aurreraren kontra. Hala ere, helburua 2B mailan mantentzea da. Horretarako kanpoko hiru jokalaria berri (Belartieta, Muguruza eta Olabarria) eta iaz Kilimon taldean jokatu zuen Ion Goikoetxea elgoibartarra fitxatu ditu Txomin Arkotxa entrenatzaileak. Huez gain, 1. erregionaleko hainbat jokalaria daude 98/99ko Haundin: Lorenzo, Caro, Iturbe, Leonardo, Araujo eta Gurrutxaga, nahiz eta azken bi hauek 1. erregionaleko fitxa duten oraindik. Hala ere, entrenatzaileak erregionaleko edozein jokalaria har dezake Haundirekin entrenatzeko edo partiduren batean titular izateko.

● **Argazkilaritza ikastar emango du Ongarrik irailaren 19an eta 20an**

Ongarri Argazki Kolektiboak argazkilaritza tailer praktikoa antolatu du irailaren 19 eta 20rako. Patxi Cobo argazkilaria bilbotarra izango da irakaslea eta klaseak Ikastolan emango dira. Landuko den programa honako hau da: argiaren teoria, laserra, transmisioko eta erreflexioko hologramak, laborategi holografikoa, plaka holografikoa, rebeladore eta zuritzaile erabilienak eta argi zuria-ekin ikusten den holograma 'denisyuk' deritzona egitea. Ikastaroa goizeko 9:00etatik 13:00era eta arratsaldeko 15:00etatik 19:00etara bitartean izango da, bazkaltzeko tartearekin. Taldeak 12 lagunekoak izango dira gehienez. Matrikularen zenbatekoa 10.000 pta.koa da eta 7.000 pta.koa Ongarriko bazkideentzat (bazkariak eta materiala barne). Ikastaroan parte hartu nahi dutenek objektu solido txikiak eraman beharko dituzte. Izena emateko 943 74 01 25 zenbakira deitu.

**17 milioiko aurrekontua izan dute 98ko San Bartolome jaiek**

Aspaldian izan diren jai onenetarikoak izan dira Udalaren ustetan

*1998ko San Bartolome jaietan 17 milioi gastatu ditu Udalak. Ohienez, ekitaldirik garestienak, Baserritarren Eguna, musika ekitaldiak, sokamuturra eta su artifizialak izan dira. Udal Kultura Sailekoek adierazi duteenez, "pozik gaude aurtengo jaiek izan duten harrerarekin, nahiz eta apustu arriskutsua egin dugun ekintza gehienak Plaza Handian antolatu ditugulako".*



**P**artaidetza handia, eguraldi ona, eskaintza zabala, lagundu duten elkarte guztiak,... faktore hauek aintzat hartuta, "azken urteotan izan ditugun jai onenetarikoak izan dira aurtengoak" Udal Kultura Sailaren iritziz. "Hala ere, datorren urtekoak hobek izateko asmotan, dagoeneko lanean hasita gaude indar guztiarekin. Era berean, elgoibartar guztion laguntza eta partaidetza eskertu nahi dugu".

Udalak musika ekitaldi guztiak Plaza Handian antolatu ditu aurten. "Badakigu Madala ingurua dela giro gehien sortzen den tokia, hala ere, pena merezi izan du, jendea Plazara hurbiltzeaz gain, parte ere hartu duelako".

**Errekorrak hausten**

Arrakasta handia izan duten ekitaldiak asko izan dira Udalaren iritziz. San Bartolome Eguneko meza nagusian, Parroki Abesbatzaren eta Bandaren emanaldia "oso hunkigarria" izan zen. Musika ekitaldiek ere oso harrera ona izan dute, bai mariatxiek, bai *Maixa eta Itziar* taldeak, bai *Trailerako 6* taldeak ere, nahiz eta "*Basque Country* izan zen jende gutxien erakarri zuena". *Barricadaren* kontzertuak "errekor guztiak hautsi zituen", baina "arazorik handiena eskenatokia eta kokalekua dira; soinua hobetzeko irtenbiderik egokiena

eskenatokia frontisean kokatzea izan daitekeela uste dugu". Haur parkeak ere "jendez gainezka egon dira", eta Haurren Egunean, orokorrean, "partaidetza oso handia izan da". Zeren enbolatuen futbol partiduetan 17 taldek hartu zuten parte eta goitibeheretan ere ikusle mordoia izan da. Baserritarren Eguna, urtero bezala, "oso jendetsua izan zen: bai ganadu feria, bai sagardo lehiaketa, bai herri kirolak,... Ezin dira aipatu gabe utzi jaietako mui-na izan den Haritz Taldearen 25. urteurreneko ospakizunak: Udal Haritz Taldeari emandako urrezko intsignia, San Bartolome Eguneko soka-dantza, hasierako eta gaur eguneko dantzariak elkarrekin dantza egin zutelarik,..."

**17 milioi guztira**

Aurten 17 milioiko kostua izan dute jaiek. Su artifizialak "ekitaldi oso garrantzitsua izan da eta 1.000.000 pta.ko kostua izan du. Baserritarren Eguneko ekitaldietan 2 milioi inguru gastatu dira; sokamuturrean 800.000 pta. eta musika ekitaldietan 3 milioi. *Barricadaren* kontzertuak, adibidez, 1.000.000 pta.ko kostua izan zuen".

Udalak herritar guztien partaidetza eta jarrera ona txalotu nahi du, "gure eskerrik beroenak beraz, elgoibartar guztioi".

**Anchústegui s.a.**  
ZERAMIKAK


Erakusketa eta bulegoa:  
Antonio Arrillaga, 6-8 behea  
83 P. K. - 20870 ELGOIBAR  
Tel: 943 74 33 44 - 74 06 92  
Faxa: 943 74 37 11

Biltegia:  
Olaso industrialdea  
Olasope, 5  
20870 - ELGOIBAR  
Tel: 943 74 20 38/74 23 71

**OIERKI** IGOGAILUAK

Urrutira deitu gabe bertakook segituan konponduko dizugu igogailua

☎ 943 20 35 15 ● ☎ ABERIAK 943 20 35 15  
Bista Eder, 11 (sotanoa) ● 20600 EIBAR



UDALAREN izenean,  
eskerrak elgoibartar guztioi,  
haur, gazte zein nagusi,  
denon artean lortu baitugu  
San Bartolome jaiak  
giro eta umore ezin hobean

**INTERESEKO TELEFONOAK**

**OSASUNA**

- Anbulategia:  
 Larrialdiak . . . . . 943 461111  
 Txanda hartzeko . . . 943 743354  
 Planning-a . . . . . 943 742950  
 Alkoholiko Anonimoak . . . 943740385  
 D.YA (anbulantzia) . . . 943 464622  
 Gurutze Gorria . . . 943 743864  
 Mendaroko Ospitalea . . . 943 756264  
 Odol Emaileak . . . 943 743936

**GARRAIOAK**

- Eusko Trenbideak . . . . . 943 740442  
 PESA (Eibar) . . . . . 902 10 12 10  
 Taxi geltokia . . . . . 943 740898

**UDALA**

- Euskara Zerbitzua . . . . . 943 744366  
 Udal Kirol Patronatua . . . 943 744415  
 Kultura Zerbitzua . . . 943 742158  
 Mendaroko Udala . . . . . 943 756100  
 Ongizate zerbitzua . . . . 943741008  
 Udaletxea . . . . . 943 741050  
 Udaltzaingoa . . . . . 943 741394

**BESTELAKOAK**

- Elgoibarko Izarrea . . . . . 943 741626  
 Kiroldedia . . . . . 943 744415  
 Kontsumo Bulegoa . . . . . 943 743088  
 Liburutegia . . . . . 943 743525  
 Musika Eskola . . . . . 943 742145  
 Mintxeta . . . . . 943 744315  
 Parrokia . . . . . 943 740842  
 Postetxea . . . . . 943 741547  
 Gaztetxea . . . . . 943 743572

**ADINEKOEN ETXEAK**

- San Lazaro Egoitza . . . 943 740296  
 Zaharren Biltokia . . . . 943 740526

**IKASTETXEAK**

- Haur Eskola . . . . . 943 74 21 41  
 HHI (EPA) . . . . . 943 74 08 80  
 Herri Eskola . . . . . 943 74 08 79  
 I.M.H. . . . . . 943 74 41 32  
 Herri Institutua  
 Arreiturre . . . . . 943 74 02 67  
 Ezenarro (Meka) . . . 943 74 44 80  
 Ikastola . . . . . 943 74 44 41  
 Pilar Ikastetxea . . . . . 943 74 13 31

**KOMUNIKABIDEAK**

- BARREN . . . . . 943 74 41 12  
 El Diario Vasco . . . . . 943 74 40 73  
 El Correo Español . . . 943 74 10 82  
 Egin . . . . . 943 10 84 21  
 Zazpiki Irratia . . . 943 74 34 74

**13**  
 igandea

**12:30 MUSIKA**  
**BANDAREN**  
**KONTZERTUA**  
 Herriko Antzokian

**16:30-19:30-22:15 ZINEA**  
 "Armageddon"

**11**  
 ostirala

**22:15 ZINEA**  
 "Armageddon"  
**23:00 'LA POLLA' ren**  
**KONTZERTUA**  
 Gaztetxean  
 Antolatzailea: Gazte  
 Asanblada  
 Sarrera: 500 pta.

**12**  
 larunbata

**19:30-22:15 ZINEA**  
 "Armageddon"

**14**  
 astelehena

**18:00 BUZTIN**  
**IKASTAROA**  
**HAURRENTZAT**  
 Aita Agirre plazan  
 Antolatzailea: Lurki tailerra  
**22:15 ZINEA**  
 "Armageddon"

**18**  
 ostirala

**22:15 ZINEA**  
 "La ciudad de Los Angeles"

**T X A N D A R A**

**FARMAZIAK**

	Egunez	Gauetz
12	Yudego	Yudego
13	Yudego	Yudego
14	Etxeberría	Etxeberría
	(Santa Ana kalean)	
15	Escala	Escala
16	Yudego	Yudego
17	Zabaleta	Zabaleta
18	Etxeberría	Etxeberría
	(Errosario kalean)	

**ESCALA:** Rekalde, 1  
 Soraluze. Tel: 75 16 38  
**ANDUAGA:** Mendarozabal, 1  
 Garagarza. Tel: 75 61 42  
**ZABALETA:** Kalebarren, 9  
 Soraluze. Tel: 75 13 84

**OKINDEGIA**

**13 igandea** Doña Mercedes

**ZINEA**



**Zuzendaria:** Michael Bay.  
**Antzezleak:** Bruce Willis, Steve Buscemi, Liv Tyler.

**Armageddon**

Tamaina handiko asteroide bat lurre-rantz dator. Mundua salba dezaketen bakarrak perforazio lanetan adituak diren langile batzuk dira. Langile hauek asteroidearen barruan sartu behar dira suntsitu nahi badute. Langile-etariko baten emaztegaia ezin da joan eurekin eta beraz, zain geratu beharko da bere senargaia eta lantaldeko beste kideak itzuli bitartean,



## ● Irakasleen lan-poltsa osatzeko deialdia

DEBABE Udal Euskaltegien Mankomunitateak irakasleen lan-poltsa osatzeko asmoa dauka. Baldintzak honako hauek dira: litzentziatura, diplomatura edo HABEren homologazioa izatea eta EGA titulua edukitzea. Aukeraketa meritu lehiaketaren bidez egingo da. Interesatuok, irailaren 22a baino lehen, bidali Curriculum Vitae-ak ondorengo helbidera: Nafarroa Enparantza, 2, 20870 Elgoibar - Gipuzkoa. Informazio gehiago nahi izanez gero, 943 74 27 31 zenbakira deitu.



## ● *La Polla* musika taldearen kontzertua Gaztetxean

Gazte Asanbladari esker, gaur, hilak 11, Euskal Herriko musika talde ezagunenetariko bat zuzenean entzuteko parada izango da Gaztetxean, 'La Polla'. Kontzertuaren hasiera ordua gaueko 23:00etarako dago jarrita eta 500 pta.ko sarrera kobratuko da.

## ● Buztin ikastaroa haurrentzat irailaren 14tik aurrera

Lurki Zeramika Tailerraren eskutik, irailaren 14tik irailaren 7ra bitartean, haurrei zuzendutako buztin ikastaroa izango da. Ikastaroaren ordutegia arratsaldeko 18:00etatik 20:00ak bitartekoa da astelehenetik ostegunera bitartean. Izen-ematea Lurki Tailerraren egoitzan egin daiteke (Aita Agirre plaza behea, ezkerre).

## ● Musika Bandaren kontzertua


Domekan, hilak 13, Udal Musika Bandak udazkenegun denboraldiko lehen kontzertua emango du Herriko Antzokian. Eguerdiko 12:30etik aurrera eta Jose Antonio Osorok zuzenduta, honako pieza hauez osatutako egitaraua eskainiko dute: *Churumbelerias* pasodoblea, *Poeta y Aldeano* obertura, *Sinfonía Italiana* minuetoa, *Lawrence de Arabia* pelikulako doinua eta *El Barberillo de Lavapies* fantasia.

## ● Artazo baserriaren aldeko jaialdia

Ekainean erre zen Artazo baserria berreraikitzeke lanean dihardu Artazo Baserriaren Aldeko Batzordeak. Jakin dugunez, abenduaren 18an, ostirala, jaialdi bat egin nahi dute Herriko Antzokian. Jaialdia Elgoibarko jendearekin osatu nahi dutenez, parte hartzeko prest dauden herriko kulturagileei (kantari, musikari, etab.) gonbitea luzatu nahi die. Beraz, jaialdian parte hartzeko prest zaude tenok, deitu hilaren 30a baino lehen Elgoibarko Izarrako 943 74 16 26 zenbakira (Imanol).

## ● Araotz eta Urkulu arteko mendi travesia

Morkaikok mendi irteera antolatu du datorren zaturako, hilak 19, Araotz (Oñati) eta Urkulu (Aretxabaleta) artean. Irteera goizeko 8:00etan izango da Plaza Handian. Irteerara joateko asmoa duenak izena eman dezala elkartearen (943 74 02 97).



## K.E.Y. *ingles* akademia

- Maila guztiak (8 urtetik aurrera)
- KET, PET, First Certificate, Advanced (Cambridge Azterketarako prestaketa)
- Talde homogeneousak
- Ikus-entzutekoak
- Plaza mugatuak

### MATRIKULA EPEA ZABALIK GOIZEZ

9:00etatik 11:00era  
telefonoz deituz gero

### ARRATSALDEZ

17:00etatik 19:00etara  
akademian

Cambridge Unibertsitateko  
Azterketetarako Batzordeko  
kidea ES438

Bernardo Ezenarro, 5-3. esk. Tel: 943 74 30 44

**OHARRA:** Merkatu Txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdia da.

## Lana

### ◆ ESKAINTZA ◆

◆ Emakume bat behar dut etxeko lanak egiteko.

☎ 943 74 35 23 (gauzez)

◆ Pertsona bat behar da ume bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. Goizeko 7:00etan hasita.

☎ 943 74 39 43

(gaueko 21:00etatik aurrera deitu)

◆ Pertsona bat behar da arratsalde eta jaiegunetan tabernan lan egiteko. ☎ 943 74 28 97/ 943 74 0867

### ◆ ESKAERA ◆

◆ Erizaintzan diplomatutako neska euskalduna eskaintzen da pertsona gaixo edo edadetuak zaintzeko, etxean edo/eta ospitalean, egunez nahiz gauzez.

☎ 943 74 27 78 (Itziar)

◆ Neska eskaintzen da umeak zaindu edo etxeko lanak egiteko. ☎ 943 75 62 40 (Estibaliz)

◆ Barne Merkataritzan diplomatutako neska langilea eskaintzen da Elgoibar eta inguruetan dendari lanean aritzeko. ☎ 943 74 10 09

## Etxebizitzak

◆ Apartamentua salgai Loredon. Altzariak ditu eta garaje itxia. Prezio interesgarria. ☎ 943 74 29 32

◆ Alokairuko etxean dagoen mutil batek laguna behar du konpartitzeko. ☎ 989 34 81 97 (gaueko 21:00etatik aurrera).

◆ Neska batek beste neska bat behar du alokairuko etxea konpartitzeko. ☎ 94 68 24 148

◆ San Bartolome 2 zenbakiko 4. pisuan dagoen 25 m<sup>2</sup>ko teilatupeko lokala salgai. 1.500.000 pta. ☎ 943 20 30 83 (Arantxa)

◆ Etxe bat hartuko nuke alokairuan. ☎ 943 31 24 48

◆ Laredon, hondartzaren ertzean dagoen apartamentua alokatzen dut. ☎ 943 79 52 80

◆ Jakan (Membrilleras), apartamentua salgai: bi gela, garajea eta trasteroa. ☎ 943 74 20 31

◆ Benidorm-eko Levanteko hondartzaren lehen ilaran apartamentua alokatzen da. ☎ 943 74 20 31

## Bestelakoak

◆ Caritasek etxebizitza bat jatzeko denetik behar du. Premiazkoa da. Kotxesila bat ere behar da.

☎ 943 74 03 78/ 74 15 09/ 74 12 57

◆ Paparreko brotxea galdu dut. Errobo forma dauka. Aurkitu duenak dei dezala ☎ 943 74 13 41ra eguerdian.

◆ Katu ar bat oparitzen dut. Lau urte ditu. Jateko platera eta abarrek. ☎ 929 47 76 98

◆ Perikito berde bat galdu zait. Norbaitek topatu badu dei dezala, mesedez. ☎ 943 74 08 10

◆ Hiru-Iturri inguruan bastoi bat galdu nuen. Norbaitek aurkitu badu, dei dezala. ☎ 943 74 15 09

◆ Urrezko pultsera bat galdu dut. Norbaitek topatu badu dei dezala ☎ 943 74 41 28 telefonora (gauzez).

## Partikularrak

◆ LOGSE eta DBHko klaseak ematen ditut.

☎ 943 74 08 09/ 943 20 27 82 (gauzez)

◆ Dibujo teknikoko klaseak ematen ditut.

☎ 943 74 43 98 (Iñaki. Gauzez deitu)

◆ Fisika eta matematikako klase partikularrak ematen ditut.

☎ 943 74 13 34 (Andoni)

◆ Ingeles klase partikularrak ematen ditut. Talde txikiak.

☎ 943 74 07 86

◆ Alemaneko klase partikularrak ematen ditut. ☎ 943 74 00 98

◆ Ingeles klase partikularrak ematen ditut goizez.

☎ 943 75 50 35 (Imanol)

◆ Eskola aholkularitza partikularrak ematen dira 13 urtetik 20ra bitartekoentzat.

☎ 943 74 41 16/ 907 15 30 62

## Garajeak

◆ Garajea hartuko nuke alokairuan Urсандin.

☎ 943 74 17 01 (Aitor)

◆ Garajea saldu edo alokatzen da Juan Mugerza kalean.

☎ 943 74 12 04

◆ Garajea alokatzen da, Pista Beltzaren azpian. ☎ 943 74 14 89

◆ Marradun garajea alokatzen da Pista Beltzean. 5.000 pta. hileko. ☎ 943 74 00 70 (gauzez)

◆ Garaje itxia saltzen da Arregitorren. ☎ 943 75 51 77 (Tere)

◆ Garaje itxia alokatzen da Leku-Ederren. ☎ 943 74 26 94

◆ Marradun garajea alokatzen da San Roke 5-7an. ☎ 943 74 33 39

◆ Garaje itxia saltzen da Pedro Migel Urruzuno kalean. ☎ 943 74 22 00 (Gaueko 21:00etatik aurrera)

## Salerosketak

### ◆ SALDU ◆

◆ R5 Copa Turbo autoa salgai. SS 4072 Y ☎ 943 74 07 92 (Izakun. Gauzez deitu)

◆ Bulegorako altzariak saltzen ditut. Nahiko berriak. ☎ 943 19 21 28 (gauzez)

◆ Sukalde elektrikoa + butanozkoa saltzen dut. Altzairu inoxidableko plaka dauka. Thinsen marka. Nahiko berria. ☎ 943 74 03 37

◆ Citroen AX GT, SS AF saltzen dut. ☎ 943 74 20 32

◆ SS-AK matrikuladun Seat Marbella kotxea salgai. Egoera onean. Prezioa: 230.000 pta. ☎ 943 74 11 29

◆ Kitarra espainiarra saltzen dut. Berria, estrenatu gabe. ☎ 943 74 17 01 (Asier)

◆ Garbigailua saltzen dut. Fagor etxekoa. Prezioa hitz egitekotan. ☎ 943 74 39 75 (Arrate)

◆ Euskal artzai txakurrak saltzen ditut. 1998ko uztailean 21ean jaiotak. ☎ 943 74 32 57 (gauzez deitu)

## Agurrak

◆ Superzorionak **Argia Arantzamendi** hilaren 17an urteak beteiko dituelako. Egun zorionsu bat igaro dezazula opa dizugu zure ilobek eta koinatak.



◆ Zorionak **Gorane Aiestari** abuztuaren 28an 3 urte bete zituelako. Guraso eta familia osoaren

partez.

◆ Zorionak **Iker Hernandezi** 2 urte bete dituelako. Guraso eta familia osoaren partez.



◆ Zorionak **Juan Landari** hilaren 2an urteak bete zituelako. Zorionak familia osoaren partez eta be-



reziki Inigoren partez.

◆ Zorionak **Leire!** Irailaren 5ean 7 urte bete zenituen. Neska haundia zarenez, belarririk 7 tirakada eta musu haundi bat eman nahi dizugu guraso, amama, osaba eta Aitorren partez.



◆ Zorionak **Maria Maiztegiri** hilaren 8an urteak bete zituelako. Iker eta Julenen partez.

◆ Zorionak **Unai Diezi** hilaren 1ean 3 urte bete zituelako. Guraso eta aitona-amonen partez.



◆ Zorionak **Maria Isabel Leali** hilaren 10ean 2 urte bete zituelako. Guraso, aitona-amonena eta

# ZEZEN-BIDE

Auto, autobus, kamioi  
eta motorrentzako  
gida-baimenak

## AUTO-ESKOLA



*%10eko deskontua  
Gazte Txartelarekin*



San Frantzisko, 43 – Tel: 943 74 27 20 – ELGOIBAR ■ Zezenbide,1-1 – Tel: 943 20 34 45 – EIBAR

# Euskaltegiak



# KENSINGTON

## IKASTURTE HASIERA IRAILAREN 15EAN 1998-99 MATRIKULA ZABALIK IKASTETXE GUZTIZ BERRITUA!



### ZERBITZUAK

- Idatzizko eta ahozko itzulpenak - ingelesa, frantsesa eta alemana
- Lokuzio profesionalak
- 3 urtetik gorako saila
- Gazteen saila
- Nagusien saila
- Enpresen saila

### IKASTETXE BERRITUA

- Intsonorizatutako ikasgelak
- 3 edo 5 ordu maila guztietan
- Ikasgela gehiago
- Maila gehiago 1-12
- Multimedia eta internet laborategia
- Material didaktikoaren salmenta zuzena
- Liburu eta bideoen zerbitzuak ikasleentzat



GIPUZKOAKO HIZKUNTZA  
IRAKASLE ELKARTEKO  
BAZKIDE

P. MUGURUZA, 8 - 20870 ELGOIBAR  
TEL/FAXA: 943 74 02 36  
TEL: 943 74 35 12  
E-MAIL: [kensington@redestb.es](mailto:kensington@redestb.es)

EGUZKI AUZOA, 7  
20577 ANTZUOLA  
TEL: 943 78 70 30